



BRUMA NEGRA

LANBRO BELTZA

Plentzia Beltza

Calibre .38

LANBRO BELTZA X. NAZIOARTEKO IPUIN LEHIAKETA

Plentziako Udalak antolatutako Lanbro Beltza X. Nazioarteko Ipuin-Lehiaketako euskarazko modalitatearen epaileek, hau da, Oskar Azkona eta Joseba Lozano jaunek, epaimahaiburua Noemí Pastor andrea delarik, erabaki dute:

Lehenik, finalista Aloa Elortza dela, “Harrabotsak hizpide” ipuinagatik.

Eta bigarrenik, Lanbro Beltza X. Nazioarteko Ipuin-Lehiaketako euskarazko modalitatearen irabazleak ex aequo direla Gotzone Butron, “48 ordu” ipuinagatik, eta Juan Manuel Gallego, “Xantaia katea” ipuinagatik.

Plentzian, 2022ko ekainaren 25ean

Zer non

<i>48 ordu</i> , Gotzone Butron	4
<i>Xantaia katea</i> , Juan Manuel Gallego	22
<i>Harrabotsak hizpide</i> , Aloa Elortza	33

48 ordu

Gotzone Butron

Aizkorakada moduko bat sentitu zuen buruan logaleak egon arren. Atzealdean hasi eta bekainetaraino zihoan arrakala jasanezinak esnarazi zuen. Egundoko saioa egin behar izan zuen begi bat zabaltzeko. “Zer arraio hartu nuen?”, baina hartaz pentsatzeko eginahalak berak are minberatsuago uzten zuela ikusita, erlojuari begiratu zion. Uhalaren orde zapi batekin lotzen zuen ordulariaren esferak 12:20 markatzen zuen. Eguna ala gaua zen jakitea, ordea, beste kontu bat zen, etxetik irten aurretik pertsianak beheraino jaitsita uzteko ohitura baitzeukan Zazpi Kaleetan bizi zenetik, harrikada edo pilotakadaren batek etxeko kristalen bat apurtu ez ziezaion. Ez zeukan aparteko gastutarako sosik.

Mihia mugitzen hasi zenerako, zunda garratz batek hartu zizkion sudur zuloak. Goragalea saihesterakoan gorputzaren mugimendu arin batek eskua lurrean luzatu arazi zion, eta orduantxe ohartu zen gonbito hotz

baten ondoan hartu ziola loak, korridorearen erdian. “Ostia puta!”. Begiak erdi ireki zituen, botekin horman bultza egin zuen eta narras heldu zen egongelako sofaren ordezkoko koltxoi eta kuxinen gainera. Zerraldo erori zen haien gainean.

Handik ordu batzuetara, telefonoaren txirrinak esnatu zuen. “Nor da? (...) Ama, orain ez, mesedez. Deitukotsut geroago”, eta eskegi barik utzi zuen aurikularra, nahita, haren aldizkako tu, tu, tu gogaikarriak bere onetik atera zuen arte. Komunera jaiki zen. Baldar zebilen, aldaroka, esku bat sabelari eutsita eta bestea kalean aurkitutako altzari zaharrei edo hornei helduta. Han, komunontzian eserita, burumakur eta begiak itxita, txizaren zorrotadak eragin zion erresuminak errealitatera ekarri zuen, deblauki.

Aurreko iluntzean, galbana gainetik kentzeko, Lolesek zurrupada luzea eman zion garagardoari. Epel eta nazkagarri zeritzon, baina adoretzeko baliagarri. Jantzita egin zuen lo-kuluxka, bota militarrek erantzi gabe, eta zutuntzean, damu izan zen. Lokarriak nasaitu zituen apur bat, jantzi eta orraztu bitartean. Galtza elastiko beltzak ez zituen aldatu, eguneroko janzkera zuen.

Zalantzan egon zen haien gainetik larruzko minigona jantzi ala ez. Baietz erabaki zuen, sexyago ikusten baitzuen bere burua. Kamisetaren gainetik Sex Pistols-ena jarri eta makillatu egin zen begi-lapitz beltza erruz erabiliz. Ilean ez zuen lakarik erabiltzen, lagunei ez bezala berari begiak gorritu egiten baitzizkion. Chimbo xaboia erabiltzen zuen ilea tente jartzeko.

“Horrela, natural-natural”, esaten zion ispiluko emakume gazteari pose dibertigarriak egin bitartean xanpu iragarkietako beste haiek imitatuz, ez baitzuen adats luze eta distiratsua, motz eta histua baizik. Eskumuturretik kendu barik eramaten zuen erlojuari begiratu zion, mugimendu mekaniko batez. Egongela miatu zuen begiradarekin behar zituenak kokatzeko: jaka beltza, giltzak, tabakoa eta txiskeroa. Tabako paketeen begiratu ere ez zuen egin ia haxix puskarik gelditzen zen, bazekien ezetz. Atea itxi eta arrapaladan abiatu zen eskaileran behera, ahapeka Las Vulpes-en abestia kantatzen: me gusta ser...

Gaztetxean aurkitu zuen kuadrilla, eguenero bezala, barraren parean.

Atean, unibertsitateko lagunak agurtu zituen sorbaldetako kolpe leun batekin “Gaur be hemen?”, “Gu betikoak ditun, bazekinat”, begirada barraren atzealdean iltzatuta bazeukan ere. Han, ezpainen artean zigarroa piztuta, garagardoak ateratzen zebilen Maika. Eder zegoen. Kamiseta tirantedunak bularraldea agerian uzten zion eta titi mandoak haren azpitik igartzen zitzaizkion. Zerbitzariak bazekien lokaleko begirada asko gainean zeuzkala, baina zigarroari zerion kearen atzean babestuta sentitzen zen. Hala uste zuen Lolesek, behintzat, eta bihotzaren taupadak sosegatu ezinik, hari hurbildu zitzaion, astiro.

—Betikoa.

—Kaña?

—Gura badoztazu zeozer gehixeago emon...

Keinurik egin gabe eragin zion besteak garagardoaren tiraderari.

Edalontzia aurrean jarri zionean, haatik, burua makurtu zuen.

—Kontzertua amaitutakoan irtengo naiz.

Lolesek topa egin zuen airean hitzordua emana zegoela adieraziz.

Anarkoma Zorritaren lehenengo akordeekin batera, ulu batek barreiatu zuen lokala, ehundik gora gazte burua astintzen, musikarekin bat eginez. Ile luzeen mugimendu arritmikoak argi ahulen eta taulako argien artean soslai ganoragabeak sortzen zituen. Bigarren kantua amaitu baino lehen, lagun-taldeko batek haxix bolak banatu zituen. Lolesek bostehunekoa erakutsi zion, besterik ez zuela adierazi nahian, lagunak, hala ere, eskua luzatu zion gonbidapen keinua eginez. Giroa berotzen hasia zen. Izerdia sentitu zuen tanta lodietan bizkarretik behera. Gazteak txoratuta zeuden Iralako talde honekin, eta laurak neskak izatea are zirikatzaileago suertatzen zen. Zarama baino hobeak ziren, duda barik, Eskorbuto edo MCDren parekoak. “Inquisición” abestiarekin ahots guztiak batu ziren, erritmo eroan.

Ukondoko bat sentitu zuen. Anton edo Antxon, ez zekien zehazki haren izena. Aurpegiz ezagutzen zuen Unibertsitatean greba eta asanblada deialdietan ibiltzen zen mutil baxu kirruduna, maila bat edo bi bere aurretik.

Mutilak bera ere begiz jota zuela erakutsi zuen, inoiz aurrez aurre egon ez baziren ere. Belarrira hitz egin zion zarata betean ezer ulertzerik ez bazegoen ere. Hurbil zeukan mutilaren hats epela sentitu zuen garondoan eta berotzen hasi zen. Komunera laguntzeko eskatu zion mutilak, papelina bat erakutsiz. Bi marra prestatu zituen nortasun agiriaren gainean abileziaz, eta bat eskaini zion.

Musuka hasi ziren, sartu irtenean zebiltzanen bulkaden artean. Komun

bakarreko atea itxi eta gona gerriraino altxatu zion, zakarki. Loles deseroso zegoen komunontzia belaunen atzean iltzatuta zuela. Egoeraren tenorea ikusita, esku ahurra jarri zuen mutilaren bularrean bere ondotik alderatu nahian, baina horrek bi eskuak sorbaldaren atzean lotu zizkion esku batekin, bestearekin bular aldean igurtzi zion bitartean. Haren arnasatsak nazka eman zion. “Nahiko”, edo horrelako zoezer esan zion, baina gizonak, entzungor, jarraitu egin zuen, basati. Borrokaldi antzeko haren erdian, kolpe bat sentitu zuen sabelean, arnas estu utzi ziona. Esku urduri bat aluaren inguruan, gero; altzairuzko atzamarrak, gorputzaren barruan. Eta mutilaren bortxa ekidin ezina sentitu zuenean, egiten utzi zion. Errazago eta arinago, erabaki zuen, momentuak gaindi egin zuelako kontzientziaren harrak ausiki.

Amaitu zuenean, oreka hartzen lagundu zion mutilak. Aspaldian zegoen jendea ateari kolpeka, sartu nahian. Elkarrekin irten ziren. Eskutik heldu zion gizonak, baina mugimendu trakets batekin askatu egin zen eta lagunak bilatu zituen. Une hartan, arnas hotsak entzuteari utzi eta aretoko musika sintonizatu zuen, berriro:

“solo soy tu anti-novia
solo soy tu anti-amor
soy el sexo por la cara
soy el sexo sin amor”

Burla bat zirudien. Horrela sentitu zen: oies hutsa. Norbaitek kaña bat atera zion eta zurrutada batez bukatu zuen, basamortutik bizirik irten den azken gizakia balitz bezala. Ez zion, haatik, gertatutakoa inori kontatu.

Telefono-txirrinak bigarrenez esnatu zuen Loles bariku arratsalde hartan.

Etzanda eta begiak itxita, amari erantzuteko atezatu zuen gorputza, bainabestaldean entzun zuen ahotsak larritu egin zuen.

—Loles? Hor zaude? —negar zotinen artean entzun zuen funts bako galdera.

—Maika?

—Martin hil da.

—Zein Martin?

—Zein Martin izango da, ba?! San Anton atzean aurkitu dute. Gaindosia.

—Ostia, ostia, ostia!! Non zagoz? Banoa!

Botak lotu eta, zegoen gisan, etxetik irten zen. Amorrua, oinazea eta etsipena, sentimen guztiak nahasirik etorri zitzaizkion botagurarekin batera.

Espaloian bertan egin zuen oka, eskugainarekin ezpainak garbitu eta aurrera jo zuen, Maikarekin elkartu beharreko tokirantz. Eskertu egin zuen euri-lanbroa aurpegian sentitzea. Desagertuak ziren arimatik zein gorputzetik aurreko gauak utzitako zauriak. Baita gaztetxeko zerbitzariarekin huts egitea ere. Orain Martinen heriotzak den-dena usteltzen zuen.

Basaras tabernan elkartu ziren.

—Non dau orain?

—Funerariara eraman dute. Baina, goizean, epailearen zain geratu dira, eta gurasoak bertan agertu!!

—Joder!! Zeuzer in beharku, ezta?

Maika ez zegoen bakarrik. Aurpegiz ezagutzen zuen mutil batekin zegoen, eta horrek gogaitu egin zuen pitin bat. Are gehiago, haien artean sumatu zuen adiskidantzak, keinu soil batekin adierazi baitzion honek mutilari zekiena kontatzeko.

—Oso arraroa da asunto guztia.

—Ze esan guzu?

—Herenegun sarekada bat izan zela.

—Ta?

—Bere gamelua desagertuta ibili da aste osoan.

—Zelan dakizu hori?

Lagunaren gaitzespen begiradari erreparatuta, Loles isildu egin zen mutilari hitza emanaz. Ordu horretan tabernan musika lasaia zegoen arren, burua lehertzeaz zuen, eta ura eskatu zion tabernariari.

—Talegotik irtenda gero, Martin ez zen inorekin fidatzen, are gutxiago heroina trafikatzailleekin.

—Ez kutuan elkartuko ziren.

—Kia!!

—Nork saldu zion, orduan, jakoa?

—Edo nork eman zion txutea, hobeto esanda?

Lolesi begiak begi-zuloetatik irteteko zorian eta, burua alde batera okertuta, nahi gabeko jarrera komikoa erakutsi zuen.

—Horren bila gabiltza! —ebatzi zuen Maikak.

—Goazen, ba!—. Aulkitik jaiki zen supituki, beste birengan irribarre garratza sorraraziz.

Solokoetxeko eskaileretan zeudenei erreparatu zieten ea Martinen azken garaiko lagun bat topatzen zuten. Bikote bat ikusi zuten piko bat prestatzen, maila bustien gainean. Ez ziren ezagunak. Gaueko, Txokolanda eta Mugan ibili ziren lagun eta ezagunei galdezka, baina inork ez zekien ezer. Maderoak zerbaiten bila zebiltzan, antza, baina azken sarekadan ez zuten inor atxilotu.

Egurra ematea izan omen zen haien asmoa, bat baino gehiago bero-bero eginda joan baitzen etxera, pubetako giroan murgilduta zeudenen ustetan.

Loles nekatuta zegoen, eta erdi mozkor. Aurreko eguneko bazkariaz geroztik ez zuela mokadurik probatu etorri zitzaion akordura. Garito haietako musika jasangaitza egin zitzaion eta Saibigainera jo zuten ogitartekoak eskatzea.

Porroak eskuz esku zebiltzan Barrenkaleko lagunarte gehienetan.

Lolesek Maikaren soslaiari erreparatu zion, alkoholak eta haxixak begietan ezarri zizkion laino geruzaren atzetik. Bazekien emakume erakargarria

zela, eskoziar praka gorriak eta pintxodun idunekoa beti soinean, eta bere buruari galdetu zion ea horrexegatik gustatzen ote zitzaion berari ere. Kolpe batez alboratu zuen gogoeta lagunak kaña bat eskuetan jarri zionean. Argi hitsek jendea itxuragabetzen zuten, kalea tribu urbano desberdinen amalgama bilakatuz. Jende uholdea zebilen aurrera atzera asmo bakar batekin: eguneroko errealitate gordinari bizkarra eman.

Ziztuan geratu zen dena. Berbotsak entzun zituzten aldameneko kale batean. Gero eta ozenago. Urduritasunak kaleko giroa kutsatu zuen. Batzuek ihesari eman zioten; beste batzuk istiluaren lekura abiatu ziren. Erre-sunda guztian zabaldu zen eta ke beltzak eztula eragin zien, edalontzia eskuan, tabernen kanpoaldean zeudenei.

—Zer arraio? —barrukoak irten ziren.

Adineko gizon zurrutero bat dantzari hasi zen kale erdian bere kuadrillako txikiteroek barre egiten zioten bitartean.

Sirena hotsak entzun ziren.

—Txakurrak!! —Domino efektuari esker hedatu zen abisua.

Atezuan geratu ziren ostiraleko poteatzaileak, bertokoak eta inguruko herrietatik etorriak, baina ez zen lekutik inor mugitu, tabernen jagole leialak balira legez. Harik eta, zapi palestinarrekin aurpegia estalitako zenbait gazte korrika pasatu ziren arte, amorru beteriko leloak garrasika: “polizia, hiltzailea” “txakurrak, kanpora” “gora Euskadi askatuta”. Haien artean Antxon ikusi zuelakoan, bihotzondokoa izan zuen Lolesek. Edaten zeudenek korridore bat osatu zuten iheslariak alde egin zezaten baina atzetik zetozenak ikusita barrualdeetan hartu zuten babes. Tabernarik, pertsianak jaitsi nahian, oihuka hasi ziren, jende andanaren erdian

ezinezkoa suertatu ari bazitzaien.

Pilotakada bat entzun zuten. Txistu bat eta kolpearen burrunba. Gero beste bat.

Bost zenbatu zituen Lolesek Maikaren gorputzaren kontra itsatsita. Dardara bat

igarri zuen soin osoan, apur bat kaleko egoerak sortua apur bat ondoan zeukan neskaren berotasunak eraginda.

Kalea isildu zenean, tabernak husten hasi ziren. Lolesek eskutik heldu zion lagunari eta egin beharreko galderari erantzunaren zain geratu barik, alde egin zuten kontrako bidean, bere etxeko atarira abiatuta.

Eskutik lotuta ailegatu ziren atariraino eta han, konfiantza hori eman zien istilu girotik urrun, askatu egin zituzten, urduri. Bat aurretik bestea atzetik, zurezko eskailera estuetatik, eta etxean Lolesek egongela erakutsi zion.

Lurreko lastairan jesartzeko gonbita egin zion sakabanatuta zeuden apunteak eta karpetak zokoratuz. Pisu kideak sukaldeko arasan gordetzen zituen botilak arakatu zituen.

—Tekila! —esan zuen, pozik.

Bi edalontzi eta botilarekin hurbildu zen sofara, bihotza bizkortuta.

Basokada bana edan ostean, bata bestaren gorputzera egokitzen hasi ziren, nagiak atereaz. Maikaren arnasa sentitu zuen aurpegian. Haren mihia bere ahoa miatzen, lehenengotan leun, gero malkartsu. Bere eskuek nahieran lagunaren gorputzaren zirrikituen bila. Bero-bero zegoen. Kamisetak erantzi zituzten, barrez. Atzamarragaz titiburuak marraztu zizkion maitale berriari. Titiak heldu zizkion, premiaz, eta gozamenez miazkatzen hasi

zitzazkion. Haginekin bular-muturrak inguratu, gogor sentitu arte, unea luzatuz, haren arnasa arintzen sentituz. Sexuaren usainak sudurra jo zion. Berarena? Lagunarena? Biena?

Esku bat nabaritu zuen praka elastikoaren gainetik, alu inguruan. Gero, atzamar bareak azalaren kontra. Supituki, burmuineko zokoren batean gordeta zuen sentazio nardagarri batek hartu zuen. Lagunaren eskua alboratu zuen, zakarki, ahoz gora etzanda.

—Barkatu —esan zuen, bere ateraldiarekin harrিতuta.

—Lasai, banoa! —ohe inprobisatutik jaikitzeke imintzio egin zuen Maikak.

—Ez, ez, geratu!—tonua kontrola ezinean— Zera... kontau bihotsut.

—Ez didazu azalpenik eman behar.

—Hau —hasperen egin zuen — kontau gurotsut.

Edalontziak bete zituen aurreko egunean gaztetxeke komunean jasandakoa kontatzeko adorea hartzeko, begirada sabaian iltzatuta. Bere buruari aitortzeko ere lotsa sentitu zuen.

—Hori bortxaketa da!

—Beno, ez nuke hori esango... neu joan nintzen...

—Bortxaketa da! —ebatzi zuen Maikak.

Bizkotxo sikuak kafean bustita gosaldut ostean etxetik irten ziren bi emakumeak. Irratian entzun zuten kaputxadun erradikal batzuk istiluak

sortu zituztela Bilboko Zazpikaleetan, kontainer batzuk erre ondoren. Pilotakaden aipamenik ez.

Ohiko giroa zegoen ordu horretan alde zaharrear. Hiritarrak azken erosketen premian murgilduta, umeak taberna atarien espaloietan jolasean gurasoak bazkal aurreko kontsumizioak luzatzen zituzten bitartean, eta dendariak kanpoaldean eskegita zeuzkaten erosgaiak batzen. Aurreko gaueko nahasmenaren arrastorik ez. Astrapala sortu zen txokoaren bila egin zuten osterata bat. Ingurua garbi bazegoen ere edukiontzi erreek gerrate baten lekuko elbarriak ziruditen, hormetako pintada berrien ondoan. Margo tanta batzuek letretatik behera egin zuten, presaren adierazle: “Herriak ez du barkatuko” eta amaitu gabeko beste bat: “pikoloak = (xiringa baten irudia zirudiena)”.

—Zer esan gurako dau horrek?

Maikak ez zion galderari erantzun. Pentsakor zegoen.

—Goazen Martinen gameluaren bila —esan zuen, eskuak jakako poltsikoetatik atera gabe, lagunari ukondoko bat emanaz.

San Anton zubirantz abiatu ziren. Zigarro bana piztu zuten, txiskeroak sortu zuen sugar mehea haizetik babesteko bien eskuekin estalpetuta.

—Zergatik egongo zen kanpoan sarekadaren egunean?

—Salataria delako! Joder, Loles!

—Jonki bat, salatari?

Lagunak baiezko erantzun ukaezina eman zion hitzik gabe.

—Eta zer deko zerikusirik Martinekin?

—Hori da argitu beharrekoa.

Miresmen beteriko begirada eman zion Lolesek adiskide berriari. Ez zen hitz jario handiko emakumea baina azkarra zen, duda barik. Eta ausarta.

Someratik abiatu ziren, San Anton elizaraino. Hango atarian kartoi zikinak ikusi zituzten lurrian, norbaiten ohantzea seguru asko, baina inor ere ez inguruan. Zubia zeharkatu zuten Bilbo Zaharrerantz. Plazatxoan, ezagun batzuk aurkitu zituzten. Martinena komentatu zieten baina ez noren bila zebiltzan.

Garagardo bat eta haiek pasatutako porroari zapatu batzuk eman ondoren, bideari jarraitu zioten, Urazurrutia moilarantz. Tipoa ezin zen urruti ibili.

Zubiaren aldameneko eskaileak hartu zituzten. Txiza hatsa ezin nabarmenago egin zen. Lagunen deskribapenari esker ezagutu zuten droga-trafikatzailea, punk itxuradun beste hiruzpalau tipoekin, lurrian jesarrita.

Tetrabrik ardo kutxak zeuzkaten lurrian han hemen eta txakur bat manta lohi batean etzanda. Haiengana hurbildu ziren emakumeak. Martinez galdetuta, jaiki eta korrika aldendu zen gamelua, estropezuka. Loles bere atzetik abiatu zen haserre bizian, eta lurrera bota zuen zango trabaz. Baldarra zen, drogaz gainezka zegoen eta aurpegia mailatua zuen, begi ingurua, ubel. Eskuak jarri zituen aurpegia babesteko, erasotzailea garrasika hasi zitzaionean.

—Nork emon eutson Martini jakoa?

—Ez dakit ezer! kanpoan nengoen!

Pena ematen zuen gizajoak. Baina Lolesek eskuetatik heldu zion, aurpegira begiratu.

—Badakigu txakurren salatari zarela! Esan ba, buruan tiro bat jaso gura ez badozu!

Ostikada bat eman zion bizkarrean. Gizonaren aurpegiak izua islatzen zuen. Berarekin zeudenetatik inor ere ez zen laguntzera etorriko. Bere zorte txarra madarikatzen zegoenaren antza zuen. Maika heldu zen, sosegatuago, eta gelditzeko keinua egin zion lagunari gizonaren ondoan kokoriko jarrita.

—Zuk saldu ez bazenion, nork? Zure lagunen batek?

Lurrean zegoen tipoak ezezko keinua egin zuen, oraindik larrituta.

—Ezezagunen batek?

Baiezkoa, honek.

—Nork? —urduritzen hasi zen Loles berriro, beste ostikada bat emango ziolako planta eginez.

Lagunak lasaitzeko keinua egin zion esku ahurrarekin.

—Zuri ere, noizean behin, ematen dizun tipo berberak?

Baiezko keinua berriro.

—Zakurra al da?

Sorbaldak goratuz zalantza adierazi zuen trafikatzaileak, baina aurpegian erakusten zuen ikara desagertu beharrean areagotu egin zitziola esango luke Lolesek. Maikak eskua luzatu zion, lurretik altxatzen laguntzeko. Mutu geratu zen lagunari lepotik heldu zion moilatik alde egin behar zutela adieraziz.

—Polizia dabilela droga zabaltzen? —Loles, harrituta.

—Baliteke. Martin borrokan endredatuta zebilen.

Orduan drogazalea, zegoen lekuan balaztaka, oihuka bota zien:

—Gau hartan txikito kirrudun batekin ikusi zuten.

Loles pentsakor gelditu zen une batez, gero bi pausu aurreratu eta bekoz beko jarri zitzaion lagunari, artega.

—Maika, guda baten erdian gauz!

—Eta gurea al da guda hau? —erantzunik behar ez zuen galdera zen.

—Ez. Geurea beste bat da!—amaitu zuen berak argudiaketa gabeko auzia.

San Frantziskotik alde zaharrera itzuli ziren. Ez zuten lagunik aurkitu eta arraroa egin zitzaien. Barrenkaletik hasi zuten miaketa. Lolesek erlojuari begiratu zion. Jende uholdea zegoen ordu horretarako. Eta giro nahasia. Ala bere sentazioa izango zen? Ordu erdi kostatu zitzaien gainezka zegoen kalea zeharkatzea. Jendeari erreparatuz korritu zuten Barrenkale Barrena ere.

Katuzaharrean zegoen lagunartea. Gazte batzuk musika ekipoak prestatzen ari ziren, gaueko kontzerturako seguru asko, baina ez ziren hurreratu. Erabakia hartuta zegoen eta amaieraraino eutsiko zioten. Lagunek eta kontzertuek itxaron zezaketen; euren zereginak ez. Giorgia pubera jo zuten, Someran, badaezpada. Ilun zegoen baina ez zegoen jende modurik eta sartu egin ziren.

Garagardoa eta txupitoak eskatu zuten, apur bat denbora egiteko, apur bat oilartzeko. Lolesek ordua begiratu zuen: hamarrak eta hogeit hamar pasata. Hitz

gutxiko elkarrizketan aritu ziren. Maikak belarrira esan zion:

—Aurkituko dugu!

Loles aurrera atzera zebilen, sosegu hartu barik.

Edariak amaituta taberna utzi zuten, eta Erribera aldetik jo zuten Erronda kalera. Txokolanda baztertu zuten, ez baitzuten mutila gay eta lesbianen giroan kokatzen. Bi aukera zeuden, Muga edo Gaueko.

—Goazen Gauekora —esan zuen, zeozer esateagatik.

Gainezka zegoen, jendez eta keaz. Koloretako hodi fluoreszenteak hormetako izerdi tantak agerian uzten zituzten. Barrara hurbildu ziren, eskutik helduta, bat aurretik, bestea atzetik, jendartean elkarrengandik ez banatzeko.

Bainuontzi metalikoren barruan zegoen maniki biluziari erreparatu zion.

Irrigarria iruditu zitzaion, oraingoan. Beste garagardo eta tragoxka bana. Burua apur bat joanda sentitu zuen. Ez zituen berbak egoki ahoskatzen baina ondo sentitu zen Maikaren ondoan. Aurrez aurre zeuden edaten, elkarrengandik oso hurbil jendetzaren aitzakiarekin. Pena emango zion gozotasun horretatik inoiz alde egiteak.

Orduan ikusi zuen. Dantza pistaren Discjokey-ren kabinaren ondoan. Buruarekin egin zion keinua lagunari.

—Hortxe dago! Kabinaren ondoan —esan zuen, mihia apur bat trabatuta.

—Tira! —Maikak, tinko.

Ez zeukaten planik adostuta. Baina ez zuten atzera egingo. Horrela izango al zen beti Maikarekin? Zirrara bat sentitu zuen, poza eta beldurra, esker ona eta amorrua, sentimen nahasiak laguna bera baino ausartagoa zela

onartzean. Han zegoen Anton edo Antxon, neska talde batekin berbetan. Bi lagunek inguratu zuten.

—Berba egin behar dogu.

—Bota!

—Hemen ez. Zatoz komunera —Maika argi zebilen.

Gizona haien atzetik joan zen. Loles ezagutu zuelakoa egin zuen, baina ez bestea. Ez zen kezkatu, hala ere.

—Esan!

—Emakumeak bortxatzea duzu gogoko, ezta?

—Zer? —galderak jokoz kanpo harrapatu zuen mutila.

Lolesek egundoko sumina sentitu zuen eta, aztoramen uneaz baliatuta, aurrez jarri zitzaion, lepotik bi eskuekin berarengana ekarri eta belaunkada bat eman zion hankartean, amorrus. Minez tolestu zen gizona.

—Martinekin zeunden. Nork hil du Martin?

—Ez dakit —esan zuen hitzak nekez ateraz—. Martin gutarra zen.

Sarekada hasi zenean alde egin nuen.

Orduan, lurrera bota eta ostikoka hasi zitzaion.

—Entzun ondo! —mehatxatu zuen Maikak—, Martin ez da itzuliko, baina zuk... Ez baduzu zure izena kaleetako hormetan ikusi nahi, gorde ezazu zakil zikin hori zeuretzako.

Komuneko atea itxi zuten mutila barruan utzita. Kaleetako gaugiroan galdu ziren bi emakumeak.

Gotzone Butron Kamiruaga (Urduliz, 1965), Filosofian lizentziatua, egun liburuzaina da Arrigorriagan. Zenbait literatur sari irabazi eta hainbat egileren artean argitaratu dira bere lan laburrak, euskaraz zein gaztelaniaz: Ahora / Ara, Microrrelatari per l'erradicació de la violència de gènere (Publicacions de la Universitat Jaume I, 2017), Uribe Kosta Mungialdea Ipuinak-Cuentos (Bizkaiako Foru Aldundia, 2019), Nasarako kontakizunak / Relatos para el andén (A fortiori, 2020), etab. 2021ean Sardinerak (Bizkaiko Foru Aldundia) ipuin ilustratuaren testua idatzi zuen eta 2022an Nire Sarajevo, BizkaIdatz lehiaketari hasiera eman dion narrazioa.

Xantaia katea

Juan Manuel Gallego

Epaile agurgarria:

Euskal Herritik kanpo nagoen arren, jakin ahal izan dut Jokin Gogorzaren heriotza argitzeko epaiketa abiatu dela, eta zu izango zarela auzia ebazteko arduraduna. Hori dela eta, gutun honen bidez zuregana jotzea erabaki dut, zinez uste dudalako egia guztia ezagutu behar dela.

Azaltzeko beharra ez duten arrazoiengatik ez nago nire identitatea aitortzeko moduan, baina seguru aski nahikoa izango zaizu gutun honen kontatzen direnen berri izatea. Ez naiz ni legetan aditua jakiteko aitortza anonimo bat nola eraman ahal izango den auzi batera, baina ziur nago horretarako bidea aurkitzen asmatuko duzula. Aitortzaren zati bat, bederen. Jakizu Jokinen heriotza ez zela istripu edo suizidio baten ondorioa izan. Hil egin zuten.

Horretan ez daukat inolako zalantzarik. Gutun honetan bertan kontatuko dizut zergatik egin zuten hori, baina, aurretik, jakinarazi behar dizkizut ere Jokini buruzko zenbait gauza.

Gizon zintzoa zen, edo, bere garaian bederen, zintzoa izan zen. Tamalez, arazoetan murgildu zen. Bera baino askoz handiagoak ziren kontuetan sartu zuen bere burua, eta horrek ondorioak izan zituen. Zorigaitzoko ondorioak. Eta hori guztia, gainera, deabruak kargatutako pendrive bat kudeatzeagatik.

Egia esanda, pozaren pozez zegoen lanpostu berri bat lortu zuenean. Esan zidanez, gogaituta zegoen ordura arte izanak zituen lan gehienekin. “Azkenean, lortu dut enpresa bat nire balioaz konturatzea”, xuxurlatu zidan lanean emandako lehen egunaren ondoren garagardo pare baten aurrean geundela. Ahopeka aitortu zidan hori, agian halakoak esateagatik lotsatuta sentitzen zelako edo. Inportazioan eta esportazioan aritzen zen enpresa horretan haren profileko jendea oso ondo aintzat hartzen zutela esan zidan.

Zibersegurtasun arduradun gisa hartu zuten. Pozik ikusten zitzaion, bai.

Jokinek ezin zuen imajinatu gainera zetorkiona. Hasierako egunetan dena normal zihoan enpresan, baina, aste pare batera edo, gauza arraroak sumatzen hasi zen. Kontatu zidanez, konturatu zen konpainiako nagusiak zenbaitetan bisita berezi batzuk bazirela.

Gehienetan, gizon burusoil bat zen bisitaldi horien protagonista. Beti bi morroirekin azaltzen zen. Ez zitzaien ikusten gogo larregirik disimulatzeko bizkartzainak zirela, eta, Jokinek esan zidanez, itxuren arabera ez ziren gauez leku bakarti batean aurkitzea nahiko zenituzkeen pertsona horietakoak.

Jai horretara gonbidatu zuten egunean, ordea, dena hasi zen aldatzen Jokinentzat.

Juan Luis Zulueta zuzendariaren etxean izan zen ospakizuna. A zer etxe puska! Ondotxo dakit nik, egun horretan berarekin joan nintzelako. Esana zioten joateko norbaitekin; eta bikoterik ez zuela argudiatu zuenean, erantzun zioten berdin zela, baina norbaitekin lagunduta joateko. Eta horrela aurkeztu ginen Jokin eta biok Zuluetaaren etxean, jai horretan zer topatuko genuen oso ondo jakin gabe. Berehalakoan konturatu ginen lekuz kanpo geundela, baina lorategi horretan xanpaina eta Errioxako ardo garestia edaten hasi eta gutxira, lotsa guztiak desegin zitzaizkigun. Jai horretan egon zen ere burusoila. Zuluetak berak aurkeztu zigun. Orduan jakin ahal izan genuen mexikarra zela, eta Felipe Andrade zuela izena. Inbertsorea zela esan zigun, eta negozio esparru askotan aritzen zela.

Zuluetaaren enpresa paregabea zela ere ulertu nion, jai horretako soinuen anabasen artean benetan zaila zelako solasaldiak bereiztea.

Gau horretan Andradek Jokini esan zion haren moduko norbaiten beharra zuela, eta ea ez zitzaion inporta berarekin biltzea. Lan bat eskaini behar omen zion. Jokinek ezer esan aurretik, mexikarrak aurreratu zion dagoeneko hitz egin zuela Zuluetaarekin, eta bera ere ados zegoela. Ez omen zuen zertan kezkatu beharrik.

Ez dakit bilera horretan zehazki zertaz hitz egin zuten, baina Jokinekin egon nintzen hurrengo aldian oso urduri ikusi nuen. Nabaritzen zen zerbait handian zebilela. Aurreratu zidan gauza bakarra izan zen oso proiektu interesgarrian sartuta zegoela, eta Andraderen enpresa taldean zibersegurtasunaren egoera probatzen ari zela. Nik ohartarazi nion Andrade horri ez niola kutsu onik hartzen, baina berak segituan uxatu zituen nire argudioak. Enpresa-buru eredugarria zela erantzun zidan. Ez

zitzaion oso konbentzituta ikusten hori esatean, eta esango nuke urduri jarri zela erantzun zidanean. Burua mugitu zuen, ezezkoan. Konfort eremutik atera beharra zegoela erantzun zidan.

Eta egiatan atera zen, bai, konfort eremutik.

Ia bi astez ez nuen ikusi. Harik eta astelehen batean, gaueko hamarrak inguruan, nire etxeko txirrina jo zuen arte. Guztiz arraroa egin zitzaidan, Jokin gutxitan agertzen zelako nire etxean, eta aurreneko aldia zen, gainera, abisua eman gabe egiten zuena.

Berehalakoan konturatu nintzen zerbait gaizki zihoala, bera hala moduz lasaitasuna mantentzen saiatzen zen arren. Baina urduritasuna guztiz gailentzen zitzaion, hondartzan hartutako harea eskukada bat atzamarren artean nahitaez aise askatzen den modu berdinean. Pendrive bat gordetzeko faborea eskatu zidan. Handik egun batzuetara berriro jasoko zuela. Hori esan eta desagertu zen.

Ez nuen haren berri gehiagorik izan bi egun pasa arte, egunkari digital batean lagun baten heriotza ikertzen ari zirela irakurri nuen arte. Bilboko San Anton zubitik amildu eta itsasadarrean itota hil zen gazte horren heriotza ikertzen ari zen Ertzaintza, eta suizidioaren hipotesiarekin lanean ari omen ziren. Jokin gizajoa.

Bai zera! Ez zuen bere buruaz beste egin.

Gau horretan bertan, artean Jokin bizirik zegoela, pendrivea jaso eta minutu gutxira, barruan zegoena arakatzeari ekin nion. Tentuz egin nuen, noski. Ez naiz hain tentela.

Etxeko wifi saretik deskonektatu nuen ordenagailu eramangarria, USB portuan sartu baino lehen. Halakoetan, beti oroitzen naiz Bizkaiko talde

punk baten abestiaren leloaz. “Ez naiz fidatzen kuadrillaren erdiaz, eta bi baino ez gaude kuadrillan”. Jokin nire laguna zen, bai.

Baina norberak bere interesak eta ardurak ditu.

Ez gakorik ez beste ezer: pendrive arrunta zen, eta berehala agertu zen ikonoa ordenagailuaren fitxategi arakatzailan. PDFz josita zegoen.

Hasiera batean ez nuen oso ondo ulertu zertaz ziren agiri horiek guztiak. Karpetetan banatuta zeuden. Izen gehienak ezezagunak egiten zitzaizkidan, baina argi zegoen karpeta horietako askok hainbat enpresari egiten zieten erreferentzia. Barruan, agiri batzuk ingelesez idatzita zeuden, baina gehienak gaztelerazkoak ziren. Lehen begirada batean, fakturak eta kontratuak ziren. Beste karpeta batzuk izen-abizenekin izendatuta zeuden.

Eta une horretan ni ere urduritzen hasia nintzen. Ez nuen birritan pentsatu: ordenagailua eta pendrivea bandolera batean sartu nituen, eta etxetik atera nintzen. Badaezpada, pasaporte eta etxeko kaxoi baten gordeta nuen eskudirua hartu nuen. Kalera jaitsi eta hainbat metro oinez egin ostean, taxi bat hartu nuen. Santurtzira joateko eskatu nion taxilariari, eta etxetik kanpoko lehen gaua herri horretako ostatu batean eman nuen.

Handik Oviedora joan nintzen hurrengo goizean, busean, eta, azkenik, Asturiaseko herri txiki batera.

Gurasoek herri horretan duten etxean aztertu ahal izan nuen egoera lasaitasun gehiagorekin. Momentuz ez nuen Jokinen berririk, eta gero eta argiago nuen pendrive horretan zegoen informazioa urrearen parekoa izan zitekeela.

Biharamunean izan nuen Jokinen heriotzaren berri. Hasierako ezustekoa gaindituta, berriro esku artean nuen arazoan jarri nuen arreta. Izugarrizko

pena eman zidan nire lagunaren heriotzaren berri izateak, eta argi izan nuen pendrive horren edukiagatik hil egin zutela. Horrek indarra eman zidan. Arazotzat nuena aukera bihurtzeko moduan zegoela pentsatzen hasi nintzen. Ausardia eta odol hotz pixka bat baino ez ziren behar.

Ausardia asko.

Jolas horretan aritzeko, egin behar nuen lehen gauza Jokinen hiltzaileekin kontaktuan jartzea zen. Hortaz, Andraderi hots egin nion. Ez zen zaila izan haren enpresaren telefonoa eskuratzea, baina denbora gehiago eman behar izan nuen berarekin zuzenean hitz egin ahal izateko.

Telefonoaren beste aldean haren ahotsa entzutean izan nuen lehen joera putakume deitzearena izan zen. Gogoari eutsi nion.

Horren ordeztatu, tratatu bat proposatu nion.

—Jokinek zuretzat bildu duen informazioa nik daukat —azaldu nion, ahalik eta modurik hotzenez—. Hortaz, alferrik akabatu duzue.

Ez nuen erantzunik jaso telefonoaren linearen beste aldean. Jarraitzeko gonbidapen bat bezala hartu nuen isiltasun hori.

—Badakit bera ahalegindu zela zuri ziria sartzen —hordagoa luzatu nion, gezur galanta esanez. Antza, gero egiaztatu ahal izan nuenez, bete-betean asmatu nuen—. Hainbat enpresaren gaineko informazio konprometitua lortu eta, zuri eman beharrean, bererentzat gorde nahi izan zuen. Baina ni ez naiz bera bezain txotxoloa. Ez daukat azpiegitura nahikoa enpresa horiei guztiei xantaia egiteko.

“Baina bai behin xantaia bakar bat egiteko”, pentsatu nuen, nire barrerako.

Berehala ulertu zuen seriotan ari nintzela, eta oraingoan bera zela xantaia

jasotzen ari zena. Ondorioztatuz nuen negozioa ondo ezagutzen zuela, berehala konturatu baitzen nirekin negoziatzea komeni zitzaiola.

—Ez dakit nor zaren ezta nitaz zer nahi duzun —erantzun zidan—. Baina ez daukat arazorik zurekin hitz egiteko, zuk hori nahiz izanez gero.

Nik finkatu nuen hitzordua, noski. Galtzeko aukera gehien nituen, eta jakin banekien asko arriskatzen ari nintzela. Horregatik, handik bi egunera geratu nintzen Andraderekin, Barakaldon Suediako altzariak saltzen dituen merkataritza gunee handi batean.

Adostutako orduan azaldu zen mexikarra, ohi bezala, haren bi zaintzaileak alboan zituela.

Ikusi nindutenean, eserita nengoen kafetegiko mahaira hurbildu ziren.

—Sinetsi ala ez, aurreneko aldia da hona etortzen naizena —esan zidan Andradek, nire aurrean eseri eta haren bi zaintzaileak alboko mahai batean kokatzen ziren bitartean.

Ziur nengoen horietako batek hil zuela Jokin. Ala agian biek egin zuten, elkarlanean. Modu berean, ziur nengoen ni ere hiltzen saiatuko zirela. Ez nien bidea erraztu nahi.

—Altzari merkeak saltzen dituzte. Merkeegiak, seguru aski —erantzun nion, bihotza bularretik atera behar zitzaidala—. Hemengo politikariren batek komisio galantak eramango zituen agian merkataritza gunee handi hau jartzeko baimenak errazteagatik.

—Grabatzen ari zara? —galdetu zidan.

—Ez naiz hain tentela —erantzun nion. Erantzunak ez zuen zentzu askorik, baina egoerari eusteko modukoa iruditu zitzaidan. Andradek ez zuen fitsik

esan. Segundo batzuetako isilune baten ostean, azkenean mexikarrak hitza hartu zuen, hatzekin kokospeko bizar zuria laztantzen zuen bitartean.

—Zure lagun hori izugarri trebea zen ordenagailuekin. Benetan pena bat izan zen istripu hori gertatu izana. Ziur naiz diru asko irabazi genezakeela biok haren trebeziari eta nire kontaktu sareari esker.

Eskumuturrean zuen erlojuari begirada azkarra bota zion gero. Azkarregia. Argi izan nuen nahita egindako imintzioa zela, gorputzaren lengoaia ondo ezagutzen duen pertsona batena. Sinestarazi nahi zidan solasaldi horrek ez zuela aparteko garrantzirik harentzat.

Horregatik argi izan nuen bilera horrek benetan axola ziola. Hortaz, bide onetik ari nintzen.

—Ea, Andrade jauna; arren, ez ibili luzamenduetan eta goazen gurera —erantzun nion, mahai gainera Jokinek emandako pendrivea jartzen nuen bitartean—. Hemen dago informazioa. Ondo gordetako kopia bat baino gehiago daukat, noski, eta bada jende gehiago kopiak dituen niri zerbait gertatuz gero. Kopia horietan ere jasota dago pendrivearen barruan dagoen agiri berdina. Zu eta nire arteko elkarlana jasotzen duena, hain zuzen. Ez dut uste gustatuko litzaizukeenik informazio hori lau haizetara zabaltzea.

Lehenengo aldiz urduritasun kutsu bat atzeman nion mexikarrari.

—Nik dakidala, ez dugu elkarlanik —erantzun zidan, haren bizkartzainei begira azkar bat bota zien.

—Zuk dakizula; ondo adierazi duzu, bai —bizkartzainak zertan ote ziren so egiteko tentazioari eutsi nion. Begiak Andraderenetan iltzatu nituen—. Nik ez dut akordio hori berariaz bilatu, eta seguruenik ezta zuk ere ez. Baina baldintzek egoera honetara eramán gaituzte biok.

Andradek ez zuen deus esan. Azkenak esateko garaia iritsi zela iruditu zitzaidan. Patuaren jokoan soberan arriskatua nuelako sentrazioa nuen.

—Hor barruan dago nire kontaktua —aurreratu nion—. Eta gure hitzarmenaren jarraibide guztiak.

Hau esan eta segituan aulkitik altxatu nintzen. Betertzetik begiratzean, iruditu zitzaidan haren gorilei geldi geratzeko imintzioa egin ziela, baina ez nago ziur benetan hala izan ote zen hala nire imajinazioa izan zen. Altzari dendaren korridore amaigabeetan barrena sartu nintzen, jende eta salgaien artean. Une batera iritsita, atzera begiratu nuen. Ez zirudien inor nuenik niri segika. Badaezpada ere, neurriak hartu nituen, eta ahalegindu nintzen ustezko jarraitzaileetatik ahalik eta gehien aldentzen. Grälviken sofa bati begira geratu nintzen, hori erostekotan banengo bezala. Hor ibili nintzen hainbat minutuz. Jarraian, dena ondo zihoala ondorioztatu nuen; ordain-kutxen lerrora hurbildu eta Knalla aterki bat erosi nuen.

Disimulatzeko modu bat baino ez zen; halere, pentsatu nuen, nindoan lekuan beharko nuela seguruenera. Urakanen garaian gertu zegoen.

Handik gerokoetan, nahiago nuke gehiegi ez sakontzea. Izan ere, urrezko erbestean eman ditudan hilabete hauetan gertatutakoek ezer gutxi lagundu ahal dute Jokinen heriotza argitzen. Baina bai Andradek zein nik, biok ala biok akordioa bete dugu. Berak hilabetean behin bitcoin kopuru garrantzitsu bat bidali dit, nire isiltasunaren ordainketa gisa. Ni, trukean, isil-isilik mantendu naiz. Berak informazio horrekin negozioak egin ditu. Xantaia asko, seguruenera.

Baina gauzak aldatzen hasi dira. Prentsaren bitartez jakin ahal izan dut Ertzaintzak Jokinen kasua berriro ireki duela, eta epaia abiatu dela, zu

horren epaile izanda. Hortaz, ezin naiz isilean geratu: Jokinek haren aldeko justizia behar du eta Andradek kartzela baino ez du merezi. Andrade espetxeratzeak nire eguneroko sustengu xumea den aparteko soldata hori bertan behera geratuko litzatekeela ondotxo dakidan arren.

Epaile jauna, ez hartu hau zerbait pertsonal gisa: ez zaitut ezagutzen, eta seguru aski pertsona zintzoa izango zara. Dena dela, jendek guztiak iragan bat du atzean, eta, zenbait kasutan, iragan hori bueltatzen da. Tamalez, jakinarazi behar dizut Jokinek eskuratutako informazio horretan duela hamar bat urte Bizkaiko zenbait funtzionariok egindako negozio zikin ugari agertzen direla; tartean, Bilboko portuaren bitartez Iranera bidalitako material erradioaktiboaren kontrabandoan eskuratutako irabazi handiak. Legez kanpokoak, noski, eta, horren aurrean ezikusiaarena egiteagatik, urte asko itzalpean igarotzeko aukera askorekin.

Zinez sentitzen dut, baina biziraupen kontua da. Bizitza halakoa da. Inork ez du haren patua aukeratzen. Ez erabateko moduan, behintzat.

Andradek hiru mila dolarren parekoa bidaltzen dit hilabeteen behin, baina, dena ondo bidean, ez dut uste ordainketa horiek luzatuko direnik. Hortaz, prentsara jo beharko dut nire agiri hauekin guztiekin. Ordainketa bakarra izango da egingo didatena, baina, suposatzen dut, dezente handia izango dela. Ez nuke nahi, halere, trapu zikin horiek guztiak aireratu behar izatea. Nahiko nuke nire eguneroko bizimodu xeheari eustea: bitcoin kutxazainera joan eta bizitzeko moduko soldatatxoa eskuratzea; umiltasunez baina, modu berean, duintasunez. Erbesteratu xume batek hori baino ez luke behar.

Auziaren ikerketan argigarria egingo zaizulakoan, gutun honekin batera

bitcoin helbide bat agertzen da. Gauzak bere onera bueltatzen badira, hona iritsi nintzen egunean egin nuen modu berdinean, xanpain botila bat erosi eta Jokin Gogortzaren arimaren alde topa egingo dut, ispiluaren aurrean, sikiera.

Baita zure bizitza pertsonal eta profesional arrakastatsuen alde ere.

Juanma Gallego (Bilbo, 1976) zientzian, ondarean eta geopolitikan espezializatutako kazetaria da. Gaur egun Arabako Alea aldizkariko erredaktorea da, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedraren ohiko kolaboratzailea da. Besteak beste, honako hedabide eta erakundeekin lan egin du: Baleuko-EITB, Berria, EFE Agentzia, Euskal Telebista, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Nacional de España, Elhuyar Fundazioa, Neiker, EsGlobal, One Magazine, La Aventura de la Historia, Historia y Vida eta Descubrir el Arte.

Harrabotsak hizpide

Aloa Elortza

ZURRUMURRUA

Lasterraldia. Eta pare bat haur-soinu. Eztanda antzeko hots bat jarraian, eta isiltasuna.

Horrela hasi zen guztia; arratsalde isil bat zen, etxean telebistaren soinua entzun daitekeen horietakoa, baina inor ez dagoena berari so, ezta parean jarrita ere!

Telebista paretik igaro nintzenean ez nintzen iragarkien burrunbaz jabetu, gure sabaiaren gainetik zetozen hotsek harritu baininduten.

Soinuak, zaratak, harrabotsak, asotsak; deitu nahi diozun bezala, baina gure sabaiaren gainean horiek entzuten ziren. Eta orain pentsatuko duzu “zerk du ba horrek arrarotzat? Gaineko bizilagunak izango dira” –bada hori da arraroa dena, azkeneko pisuan bizi garela–. Beraz, nola izan liteke zaratak entzutea gure etxe gainean? Neuk ere ez dakit, baina egi(te)n (ge)nuen.

Egi(te)n bai, gerora ere jarraitu (ge)nuelako entzuten dena delako soinua, baina hori aurrerago kontatuko dizuet, spoiler txiki bat besterik ez da izan.

Egun hartan buruari buelta batzuk eman nizkion zarataren harira, baina seguruenik entzun nuena nire burutazioren bat besterik ez zelakoan izan

nengoen; eta horrexegatik ez nuen birritan pentsatu.

8.55etan elkartu nintzen liburutegi parean kuadrillako artista handienarekin. Ikastera joateko gelditzen ginen, baina ezer gutxi egiten genuen azkenean. Nire lagunak egun hartan Youtubera igotzeko bideo bat editatzen amaitu zuen, eta nik, beno, aipatutakoa, nituen bost irakasgaietatik baterako sortutako 351 orrialdeko koadernoak koloreztatzen igaro nuen goiza. Youtuberra eta artista, horixe ginen, eta ikasleak, aldi berean.

Gure ikasketa saioak kafepintxo bat hartzen amaitu ohi ziren. Egun hartan ere halaxe egin genuen; herriko pintxorik goxoenak egiten dituzten tabernara joan, terrazan eseri neguko haize hotzean txamarrako kremailera goraino lotuta eta kafe bero bat hartu genuen patata tortilla pintxo betearekin batera. Berak gazta eta York urdaiazpikoarekin, entsalada barruan nireak; haragijale eta laktosa intolerantea bata, begetariano eta gazta maitale amorratua bestea. Horregatik batak besteari bere pintxo barneko gazta eman zion, eta besteak lehenari entsaladako atuna.

Bazkalordurako etxera itzuli ginen biok. Ordura arte normal zihoan guztia: goizean liburutegian gauza gutxi egin nuen, baina beno, zerbait bai behintzat. Bazkalaurreko pintxoa eta kafea hartu nituen eta bazkaltzeko ez nuen goserik; mahaia prestatu nuen eta etxeako mahaian jartzeko zain nengoen.

Guztiak mahaira hurbiltzeko zain nengoen, mugikorreko azken jakinarazpenei begira: pare bat mezu erantzuteke WhatsApp-ean, beste bat presaz erantzuteko eta Instagram-eko bizpahiru mezu ireki gabe oraindik. Gauza handirik ez. Horrelakoetan Twitter-en sartu ohi naiz, munduan zer jazo den jabetzeko.

Txiolandiako izarrek bidalitako txioak irakurtzen ari nintzen zarataren bat entzun nuenean. Norbait zerbait arrastaka mugitzen ari zela zirudien; jangelan bakarrik nengoenez oraindik, neba ohea egiten ariko zela pentsatu nuen –betiko kontua, 13.57, bazkaria mahaiari jada eta mutiko hau oraindik ohea egin gabe!–, egunerokoa.

Lagunek ez zuten kalera irteteko asmorik, ikasteari ekin nion berriz ere, nire kolore guztiak prestatu ostean. Ezinezkoa egiten zitzaidan ordea kontzentrazioa ehuneko ehunean mantentzea, noizean behin gustuko abestiren bat tokatzen baitzitzaidan Spotify-ko ikasteko espresuki prestatuta nuen playlist-ean eta ezin bainion kantatzeari uko egin.

Goizean goizetik jabetu nintzen egun hartan ez zela oso egun eraginkorra izango ikasketei zegokienez.

Liburutegian bertan ez nuen gauza askorik egin, nire lagunak bideoa nola editatzen zuen erreparatu baino.

Eta arratsaldean ere bazirudien gauza gehiegik galarazten zidatela arreta.

Gustuko abestiak ziren hasieran, mugikorreko jakinarazpenak ondoren eta nebaren garrasiak ostean. Guztiak saihesteko, mugikorra nire gelatik ateratzea erabaki nuen, baina musika entzuteko kaskoak jantzita mantentzea, tapoien gainetik, hartara neba gutxiago entzuteko. Funtzionatu zuten hasiera batean, pare bat orduz buru belarri aritu bainintzen lanean.

Hala ere, pare bat ordura, kaferako deskantsua egin ostean, ez nuen berriz lortu kontzentratzerik. Izaten dira batzuetan halako egunak, kontzentratzea ezinezko zaizunak, izan x arrazoigatik edo y motiborengatik; dena den, egun hartan nire deskontzentrazioaren zioa argia zen: noizean behin entzuten zen soinua.

ASOTS BILAKATU ZENEKOA

Zurumuru bat entzutean, zaratatxo bat entzuten da, marmar bat. Norbait ahapeka hitz egiten. Edota hots arin eta isil bat, etengabea, gelditzen ez dena.

Nik marmarrean aritzea gustuko izan dut beti. Baina marmarra edo zurumurua sinonimotzat erabiltzen direneko unean, marmarra gorrotatzen hasten naiz. Azken batean, badira egoera batzuk non zurumuru edo marmar etengabe bat entzuten den eta isiltasuna soilik behar ez duzun zuk; liburutegian, esaterako, 15 urteko gazte kuadrilla bat lanak taldean egiten ari denean.

Agian horrexegatik erabaki nuen egun hartan liburutegira ez itzultzea –edo besterik gabe, gauza gutxi egin nuelako goizean–.

Kafearen osteko ikasketa saioa abiatzear zen etengabeko zurumuru bat entzun nuenean. Baliteke aurretiaz ere hor egon izana, baina ez nintzen jabetu. Etengabea zen, baina aldakorra; batzuetan ozenagoa, beste batzuetan urrunagoa. Ez zen norbait hizketan, pauso edo oin hotsak baino. Azkarrak hasieran, norbait korrika izango balitz, arineketan, norbaitengandik ihesi, nonbaitera heldu nahian; baina nora? Gazteak baleki, zaharrak baleza.

Arina zen arineketa, bizia, gaztea. Baliteke hori izatea: gazte bat antxintxika. Baina non? Bazirudien soinua gainetik zetorrela, gure etxearen goiko aldetik; teilatutik, alegia. Pasa zitzaidan burutik aukeraren bat edo beste zarataren jatorria asmatu nahian: bele(t)za(ha)rren bat teilen artean zerbait aurkitu nahian edo arratoien bat sabaian. Hala ere, nire

buruari iruzur egin nahian nenbilela banekien, ongi gainera, onartu nahi ez banuen ere. Azken batean, ongi asko bainekien halako soinua ezin zuena egin gehienez kilo erdi pisa dezakeen arratoi batek; ezta Deba ibaiaren bazterretan pozik hazitako bizpahiru kiloko arratoi aleak ere! Eta beno, izan zitekeen beleren bat teilatuan pausatu izana, edota zozoren bat, baina halako asotsa egiteko gutxienez ostruka, kondor ala arrano beltza beharko luke izan; eta ez dut uste horrelako asko dugunik oraindik nire herrian hegaka.

Zer zen, orduan, entzuten zen neurrigabeko zurrumuru hori? Ez nuen erantzunik aurkitu, baina zaratak jarraitzen zuen.

Badirudi, gainera, neu izan nintzela entzuten nuen bakarra, etxeko gainerako guztiek ez baitzuten ezer aipatu zarataren inguruan egun osoan zehar. Ez ez zutela entzun bakarrik, baizik eta zorotzat jo ninduten! Ez omen zen posible gure etxearen gainetik soinua etortzerik, eta are gutxiago arineketak, azken pisuan bizi garelako (jada badakizun bezala, irakurle). Hala ere, argi nuen nik soinua gainetik zetozela eta ez azpiko solairutik.

Dena dela, azpitik entzungo nituela sinistarazi zidaten; eta nik kasu egin nien.

Hurrengo egunera arte bakarrik sinistu banuen ere gezur hura.

BERRIZ ERE. ETA ORAIN, ZER?

Lehen egun hartatik aurrera, nire belarriak soinurik txikienak entzuteko trebatzen hasi ziren. Kanean inoiz baino gehiagotan entzuten nuen nire izena – eta hori nire izena ez dela horren ohikoa, beraz pentsa Ainhoa edo

Xabi(er) izango banintz! –, sarriegi entzuten diren anbulantziaren sirena hotsek gehiegi eragozten zidaten ala hurren negar azantzak eta arrantzak.

Egunero sumatzen nituen ordura arte inoiz entzuteke nituen hotsik ñimiñoenak. Entzun agian aurrez ere egingo nituen, baina besterik gabe paso egiten nuen, zarata horiek ez zutelako eraginik nire egunerokotasunean. Baina egun hartatik aurrera, soinu eta hots guztiak entzuteko nire begirada, edo beno, agian hobe esanda, entzumena, zeharo aldatu zen.

Igogailu-soinuak ez dira gure eraikinean entzuten diren bakarrak. Beste egun batez bezperakoaren antzeko soinuak entzun baintuen. Eta oraingoan ez nintzen ni soilik izan gure gainean norbait korrika ari zenaren susmoa zuena, baita nire etxeakoak ere.

Bazkalordua zen bigarren egun hartan. Mahaia jasotzen hasiak ginen jada, azkenburukoa oraindik mahaian bazegoen ere. Nire etxean badugu ohitura bat, asteburuetan betetzen duguna soilik: kafearekin batera jateko gozoren bat atera mahaira, mahai jolasetan aritzeko.

Hanabi mahai jolasean ari ginen. Taldean pentsatu behar den jolas konplexu horietako bat da Hanabi. Nire kontzentratzeko gaitasuna, ordea, pixkanaka gutxituz zihoan jolasa zailago bihurtzen ari zen bitartean; nire zentzumen guztiak beste gauza bati adi zeuden, eta ez jolasari: soinua, zarata, asotsa, zurrumurrua, marmarra.

Halako batean nire nebak ere entzun zuela jabetu nintzen. Ez zuen ezer esan, baina aurpegi arraroarekin begiratu zuen sabaira; baina, nork begiratzen du sabaira arrazoiren batengatik ez bada? Gurasoek nabaritu zuten zerbait gertatzen zela, bakoitza norbere munduan pulunpatuta

geundelako jolasean buru belarri ari beharren.

Orduan nire gurasoek ere entzun zuten: lasterraldia eta oihu isil bat atzetik. Isiltasuna azkenik.

BIZILAGUNEI BISITA

Bazkaloste hartan guztiok entzun bagenuen ere, ezer ez egitea erabaki genuen, edo agian ez genuen ezer egin zer egin ez genekielako. Udaltzainei deitu behar al zaie halakoetan? Eta zer esan?

Egun arraroak izan ziren ordutik aurrerakoak, guztiok hasi baikinena nonahi zaratak entzuten, eta jada ez baikenekien bereizten nondik zetozen.

Gure hipotesi bakarra zen azpiko bizilagun berriak zirela zarataren jatorria, eta orain arte azpiko bizilaguna etxean bizi ez zenez, ez geundela ohituta zaratarik entzutera – besterik gabe, horren erraza eta horren sinplea.

Baina zaratak ez zetozela beheko solairutik, sabaitik baino, nahiko argi genuen.

Gure bizilagun berriei, gure gaineko ez-solairuan bizi ziren horiei, bisita egiteko prestatu ginen neba eta biok arratsalde hotz batean. Mamu ehiztariak baikinana, bakoitzak zerbait hartu genuen, badaezpada. Kilometroak egin genituen gure sabaiaren eta teilatuaren artean dagoen hutsunean sartu ahal izateko dagoen atera iristeko.

Baina azkenean iritsi ginen ate madarikatu horretara, gutxienez gure atariko eskaileratan gora eta behera ibili ostean, hamaika minutuz.

Eta agian orain pentsatuko duzu “Zein ate? Zergatik dago ate bat azken solairuaren sabaiaren eta teilatuaren artean?” Ongi pentsatua, irakurle!

Neronek ere gauza bera pentsatu bainuen urte batzuk lehenago.

Azken solairuan bizi bagara ere eta amak beti esan izan didan arren beroa gorantz joaten dela, gure eraikinean ez dirudi hala gertatzen denik! Neguan gure egongelan izozkiak ez dira urtzen –eta bai, gure etxean neguan ere izozkiak jaten dira–, estalaktitak sor daitezke itoginen bat egonez gero, edo Ötzi, izotzezko gizona, bera ere berpiztuko litzateke hotzarengatik. Horregatik, isolatzailea sartzea erabaki genuen pare bat urte dela.

Aditu batzuk etorri zitzaizkigun etxearen alboetan eta lurpean isolatzailea sartzera. Goian, ordea, guk egitea erabaki genuen, eta horregatik gure sabaiaren eta teilatuaren arteko zuloa ezagutu genuen. Bertara iristeko, auzoteriako buruak emandako giltza soilik ez genuen behar izan, giltzaren kopia egin, atea ireki eta gure etxea non zegoen asmatzea. Azken batean, hutsik dagoen hautsez betetako zabalgunean ezin da jakin zehazki non amaitzen den etxe bat eta non hasi hurrengoa; baina nola edo hala moldatu ginen.

Horregatik dugu giltza oraindik, giltzaren kopiarekin geratu baikin. Beraz, giltza oraindik bagenuela aprobetxatuz, han joan ginen neba eta biok.

MALETA KOLORETSUA

Ireki genuen atea eta espero ez genuen zerbait ikusi genuen. Asko harritu ginen argia ikustean pasabidearen hasieran, ez baikenuen halakorik gogoratzen. Hori al zen, agian, bizilagun berriak genituenaren lehen seinalea?

Argia atea irekita genuelako sartzan zen, baina atearan albotik bertatik ere

argi bat zetorren. Orduan jabetu ginen argi hori ez zela soilik kanpoko eguzkiarena, atearen gainean zegoen bonbilla batetik zetorrela baizik, hau da, pasabidearen barneko aldetik jada, atearen markotik.

Argiarekin itsuta geundenez, ez ginen jabetu oraindik gauza harrigarriago batez: koloretako maletaz.

Pasabidearen ertz batean, plastikoz zati baten gainean, hautsik gabeko maleta koloretsu bat zegoen. Zurtu gintuena bere garbitasuna izan zen, bereziki, eta beno, maleta han egoteak.

Beldurrak airean geunden egia esateko, ez baikenuen sarreran ezer aurkitzerik espero. Hori dela eta, ahalik

eta isilen atea itxi eta alde egitea erabaki genuen, eta errefortzuekin itzultzea. Horretarako egun batzuk behar izan genituen pasabidearen amaierara iristeko plan bat antolatzeko.

Aurkituko genuena ez zen espero genuen ezer, ezta burutik pasa zitzaigunik ere.

ITZULERA

Ez genekien zer ikusiko genuen pasabidearen amaieran, baina bagenekien zerbait bazela jada bertan; edo beno, norbait bazela bertan, maleta bat baitzegoen behintzat han. Bizilagun berria(k) gen(it)uen beraz.

Denetik eraman genuen gurekin pasabidera: esku-argiak, zartagin eta mailuak (zarata ateratzeko geuk ere, beharrik izanez gero), walkie-talkie pare bat eta topera kargatutako sakelakoa.

Hori gutxi ez balitz, nirekin liburutegian ikasten duen laguna ere neurekin

eraman nuen, Youtube-ra bideoak igotzen dituen. Bizi guztiko gertuko lagun hori. Batek jakin zer aurkituko genuen bertan! Lehen orduko berriren bat edozein momentutan sor daitekeenez, kazetari bat ezinbestean izan behar da zure eraman beharrekoen zerrendan.

Sartu ginen pasabidean, neba, kazetaria, kuadrillako beste lagun bat eta laurok. Abentura hori bai ala bai laurok batera bizi behar genuen zerbait zela sentitu genuen guztiok lagunei gure gaineko bizilagun susmoaren berri eman nienean. Azken batean, makina bat aldiz arituak ginen gure etxean ezkutaketan jolasean, armairuetan sartuz batzuk eta besteak lagunak bilatuz, bitartean jostailuzko armak genituela elkar babesteko. Eta zer zen, ba, azken batean egitera gindoazena umetan egiten genuena baino? Gauza berbera zen: nonbaitetik zetorren hotsa jarraitu, bertan zer zegoen begiratu eta gero... Gero korrika ihes egin, armairuan edota ohepean ezkutatua zegoenak bere jostailuzko armarekin bere burua defendatzen hasi aurretik.

Baina, zer egin beharko genuke halakorik gertatuko balitzaigu? Ez genuen B planik, ezta A, ezta Zrik ere.

Dena grabatuta geldituko litzateke gure kazetariaren eskuetan, hori bai, baina bizirik irtengo bagina handik.

Eta egin genuen, erreportaje ederrarekin gainera. Inoiz argitaratu ez zen erreportajearekin.

Sartu ginen esku-argiekin inguru guztia argituz. Uste genuena baino luzeagoa eta baxuagoa zen pasabidea.

Umetan betaurrekoak zituen laguna zihoan lehenbizi, jarraian nire neba zihoan, ondoren ni, eta azkenik kazetaria, bere gorputz txikitik ahots handi bat ateratzen, kameran dena ongi grabatua gelditzeko, gure esperientziak

gure burmuinen memorian ez ezik, mugikorraren memorian ere gordetzeko.

Hasieran pentsatu genuen Youtube-n zuzeneko bat egitea ideia ona izan zitekeela, hartara gure ingurukoek dena nola zihoan jakin zezaten eta aldi berean, dena ongi dokumentatuta geldi zedin. Dena den, zuzenekoak alde batera utzi eta grabatzea soilik erabaki genuen, mugikor bakarrean gordeta gelditzeko guztia, badaezpada, ez baikenekien zerekin edo norekin egingo genuen topo.

Iritsi ginen, azkenean, luzeegiak ziruditen metroak makurtuta egin ostean gure etxearen ingurura, gutxi gorabehera. Eta topatu genuen gure zarataren jatorria halako batean. Han zen, albo batera eta bestera korrika, oihu artean. Gure esku-argien argia ikusi zuenean, ordea, bat-batean isildu zen; oihu horiek inoiz bere barnetik atera izan ez balira bezala, bat-batean mutua bihurtu izan balitz bezala.

Hiruzpalau urteko umea zen korrika zebilena, baina lurrean eserita koloretako margoak eskuan zertxobait koxkortxoagoa zen gaztetxo bat zegoen. Bihotza gelditu zitzaidan une hartan.

Gure kazetariak ere hitz egiteari utzi zion, aurrez ahapeka hizketan ari bazen ere bideoan. Aho bete hortz gelditu ginen guztiok.

Zer zen hura? Ingurura begira gelditu ginen. Ohe bat zirudien zerbait zegoen ertz batean, kanpinean erabili ohi den gas horietako bat eta pare bat zartagin. Pixontzi hori bat ere bazen, eta fardel poltsa bat.

Umeengana gerturatu ginen, haiek gu bezain izutuak baitzeuden. Euskaraz hasi gintzaizkien hizketan baina bazirudien ez zutela ulertzen; gainera, haur zaharrenak gazteenari zerbait esan zion ulertu ez genuen hizkuntzaren

batean, eta elkarren ondoan eseri ziren, ohe hartan.

Halako batean, soinu bat entzun genuen; pasabidetik zetorren. Ahots bat zirudien, emakume batena.

Eta hala zen. Emakume gazte baten ile luzea ikusi genuen lehenbizi, makurtuta burua soilik ikusi baikenezakeen lehenbizi. Haurrek orduan garrasi egin zuten, eta korrika gerturatu ziren emakumearengana.

Gure kazetariak ez zion segundo batez ere grabatzeari utzi eta guztion mugimendu txikienak ere gordeta gelditu ziren. Baita gure elkarrizketa ere emakume harekin.

Galdetu genion nor zen eta ea zer egiten zuen gure etxeko sabaiaren eta teilatuaren artean. Izua begietan islatzen zitzaion, eta bihotzak eztanda egingo ziola edozein unetan aski ziur nuen. Gurekin janaria eta ura ere eramane genituenez badaezpada, hizketan hasi aurretik ur trago bat eskaini genion eta gustura hartu zuen. Eta ur hark emandako indarrarekin hasi zitzaigun mintzatzen.

Aipatu zigun lehen gauza euskaraz hitz egiteko ez zela oso gai izan zen, baina saiatuko zela, horretarako ari zela ikasten Euskaltegian. Nire bihotza urtu egin zen une horretan; bere ahotik lehen hitzak irten ziren unean jabetu ginen guztiok euskara edota gaztelania ez zirela bere ama hizkuntza, bere ahoskera bereziagatik.

Saharako desertutik zetorrela azaldu zigun, eEta urteak zeramatzala euskaraz hitz egiten.

Zur eta lur gelditu ginen kontatu zigun guztiarekin. Sahararra omen zen, eta 18 urte bete arte, udaro etortzen zen Oporrak bakean programarekin Euskal Herrira, desertuko bero jasanezinetik ihesi. 18 bete zituenean, ordea,

ezingo zela gehiago itzuli bere bigarren etxera, Euskal Herrira, jakin zuen; horregatik bere lehen etxera ez itzultzea erabaki zuen, Saharako hondarra Debako hondartzakoarengatik ordezkatzea, erabaki garratz eta zaila.

Ordutik zazpi urte igaro direla esan zigun. Kalkuluak egin eta ohartu nintzen 25 urte besterik ez zituela orduan, hau da, gu baino bizpahiru urte gehiago ez. Uf.

Badirudienez, Idder-ekin, gure lagun gaztearekin dauden haurrak bere neba eta ahizpa dira. Hauek, ordea, ez ziren duela 7 urte gelditu Euskal Herrian, batez ere bietako bakar bat ere ez zegoelako sortua oraindik ere. Bi urte direla erabaki zuten Euskal Herrian gelditzea Oporrak bakean programarekin uda igarotzeko hona etorri ostean.

Aurten bi uda, diru pixka bat aurrezten hasia zenez Idder, neba-arrebak urte batzuez berarekin gelditzea adostu zuen familiarekin, beste neba-arreba asko zituztelako gurasoek zaintzeko oraindik Saharan, eta hartara beraiantzat ere errazagoa izango zelako. Izan ere, Idder-ek Euskal Herrian geratzea erabaki bazuen ere azkenekoz programarekin hona etortzean, ez zen bat-batean erabakitako zerbait izan. Azken egunean hegaldia ez hartzea aurretiaz zuen pentsatua, uztail horretan hona etorri aurretik, eta bere Saharako gurasoek hitz eginda zuten jada Euskal Herriko gurasoekin dena zehazteko; azken batean, denen artean erabakitako zerbait izan zen.

Hasiera batean hemengo familiak harreran edo adopzioan hartzea zen asmoa, baina jada 18 urteak beteak zituenez Idder-ek, arazoak soilik ez ziren azaltzen alde guztietatik. Horregatik, urte batzuez dokumentazio egokirik gabe bizi izan zen, baina azkenean lortu zuen Euskal Herrian bizitzeko baimen antzeko zerbait. Ez zuen, hala ere, oraindik ezer ofizialik,

halako prozesuek luze jotzen baitute.

Horregatik bizi omen dira azken boladan gure etxearen gainean. Arazoak izaten hasiak ziren legedi aldetik administrazioarekin, legearen arabera bere neba-arrebak bahitu baitzituen bi urte badirela Idder-ek, nahiz eta berez bere gurasoek eskatu haurrak hartzeko azken aurreko egunean, Saharara itzultzeko hegaldia hartu ez zezaten.

Han eta hemen bizi izan omen dira ordutik. Etxe batean aurkitu dituztenean, beste etxe bat okupatu dute, edo beste lagunen baten etxean bizi izan dira. Azken aukera izan da honakoa, bere Euskal Herriko familiaren eraikinean bizitzea. Hasieran etxean bertan bizi ziren, baina Ertzainak zein Guardia Zibilak sarri joaten ziren etxera bisitan Idder eta bi haurrak han ziren galdez; zorionez, ez zituzten inoiz aurkitu. Hala ere, arriskua ikusita, eraikineko azken solairuaren eta teilatuaren arteko hutsunean bizitzea izan zitzaien azken aukera, ganbara bera miatu baitzuten noizbait poliziek. Auzoteriako buruak izanik bere familia, giltza eskura zuten, eta beste inork ezingo lukeenez lortu giltza hori auzoteriako buruari eskatu gabe, ez zegoen arazorik beraientzat.

Bazen arazo bat, ordea. Gure familiak oraindik bazuen giltza. Gu ginen arazo beraientzat orain. Horregatik, inori ezer ez esatea erabaki genuen. Gurasoei kontatu genien, azken batean guztiaren berri baitzuten beraiek ere eta guk adina entzuten baitzituzten zaratak; baina sekretua mantentzeko hitza eman zuten.

Gure kazetariaren lana ere pikutara bidali behar izan genuen, ezin izan baikenuen bideoa gorde. Ezin izan baino, nahiago izan genuen ez gordetzea eta bizipen hura oroitzapen gogoangarri batean bihurtzea

besterik ez.

Egun hartatik aurrera, Idder-ekin kafe bat eta patata tortilla pintxoa hartzeko gelditzen gara hilean behin.

SOINU GEHIAGO

Beste soinu bat nire gelan. Baina zer demontre? Zein zarata da oraingoan?

Iratzargailuaren soinu nazkantea besterik ez da izan, goizeko ernarazten nauen pipipi gogaikarria, besterik gabe. Baina orduan, benetakoak izan al dira orain arte entzun ditudan lasterraldiak gure sabaiaren gainean,

Sahara eta Idder?

Aloa Elortza Payros (Bergara, Gipuzkoa) XX. mendearen azken urtean jaiotako dinosauroetako bat da. Hala uste du, behintzat, haren nebak, bizi garen mende honetan jaiotako haur guztiak lehen gizakiak direla esaten baitio. Dinosaurio izanik, eta bizitza eta bere sorrerarekin tematurik, Biokimika eta Biologia Molekularra gradua ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta egun Medical Biology Master ikasketak ari da egiten Herbeheretan. Zientzia aldera jotzea erabaki arren, ez ditu inoiz bestelako arloak baztertu eta bere denbora librean idaztea du gustuko.

